

errezeta

Arrautzak plater erara

Osagaiak: dozena bat arrautza, olio, txorizoa, urdaiazpikoa, sei zainzuri, ilar egosiak, pipermorrea, 200 gramo tomate frijitu.

Arrautzak jarriko diren platertxoak olioarekin busti, eta gero tomate frijituarekin. Arrautzak kraskatu, eta platertxoetan jarri —platertxo bakoitzean arrautza pare

bat, baina betiere platertxoaren tamainaren arabera—. Ahal bada, arrautzak oso osorik paratzen saiatuko gara. Ondoren, osagai guztiak gainetik botaz joango gara, betik ordena berean, eta ahal bada osagai guztiak begi bistan geratzen direla. Behin guztia platertxoetan jarritakoa, platertxoak su motelean jarriko ditugu; zuringoa ondo egin arte edukiko ditugu, baina gorringoa gehiegi egin beharrik ez dago.



EGUNKARIA

'Arabesko kosmikoa'. Ekainaren 14an, arratsaldeko 19:00etan, Miramon Kutxaespazioan.

'Homoerotismo entre mujeres. Invisibilidad y misoginia'. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Koldo Mitxelena kulturunean, EHGA Mek antolatuta.

'25 años de lucha contra la homofobia y la discriminación'. Ekainaren 16an, Ernest Lluch kultur etxean, Eugeni Rodríguez eskutik, arratsaldeko 17:30ean.

GERNIKA. 'El camino del bienestar, del corazón a la luz'. Ekainaren 15ean, Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30ean.

IRUN. 'Tute Blanche'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan, Hemen eta Munduan elkarteak antolatuta.

IRUÑEA. 'La participación de las regiones y nacionalidades en la Unión Europea'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Navarrerria Kultur Zentroan. Iñigo Bullain Lopez ekonomistak emango du hitzaldia.

'Mano a mano con galeano'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Ioiola Aretoan, Gogoa Foroak antolatuta.

LEGAZPI. 'Experiencias familiares con el alcohol'. Gaur, arratsaldeko 15:30ean, Kultur Etxean.

LESAKA. 'Euskararen egungo egoera Nafarroan'. Bihar, Herriko Etxean, Andres Iñigo euskaltzainaren eskutik, arratsaldeko 20:00etan.

URNIETA. 'Urnietan barrena'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Luis Mari Zalduaren eskutik, Egape Ikastolako musika gelan.

ZARAUZ. Rafael Albertiri buruzko hitzaldia. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Olerti Etxean.

bestelakoak

BILBO. 'Poesia alde, poesiaren kontra'. Ekainaren 15ean, Kafe Antzokian, arratsaldeko 20:30ean, Iban Zaldia, Kirmen Uribe eta Gerardo Markuletaren eskutik.

DONOSTIA. 'Ekialdetik datorren mago handia: Txan Magoa'. Ekainaren 16an, Egia kultur etxean, arratsaldeko 18:00etan.

GASTEIZ. Koldo Ameztoi ipuin kontalaria. Ekainaren 19an, Parral tabernan, arratsaldeko 20:30ean.

TOLOSA. Poesia errezitaldia. Ekainaren 17an, arratsaldeko

erakusketa


Pedro Zarrabeitiaren argazkiak. Ekainaren 17a bitartean, Zarauzko Photomuseumean

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Euskal Herriko kostaldean zehar irudi zoragarriak topa ditza-kegu. Pedro Zarrabeitiak bere argazki makinarekin artelan bihurtu ditu irudi horiek, eta horren fruitu da *Herriaren koloreak* izenburuko erakusketa. Azkeneko 20 urteotan euskal kostaldeko herrietan eginiko lanaren ondorioa da. «Gure herriaren adierazpenik bereizgarriena salbatzeko ahalegina da, talde oroimenean gera dadin», argazkilariaren hitzetan.

Txalupa eta baxurako itsasontzietan euskaldunek koloreak konbinatzeko izan duten ahalmena azpimarratu du artistak, gaitasun hori hiltzorian baldin badago ere. «Zorigaiztoko globalizazioa horrelako eta bestelako xehetasunak eramaten ari da gure arratzale portuetatik». Koloreen inguruan honako gogoeta hau ere egin du argazkilariak: «Koloreen erabilera desberdina, artean zein eguneroko bizimoduan, gizakien adimenaren espresio konplexua da. Horrek definitzen du gizakiaren nortasuna, hein handi batean».

Azkeneko 20 urteetan Zarrabeitiak euskal portuetan ateratako argazkiak



PEDRO ZARRABEITIA

Herriaren koloreak erakusketako argazki bat.

20:00etan, Mescal tabernan, Jonan Goenagaren eskutik. Gaia: Kavafis.

AHTren aurkako kartelada. Gaur, Triangelu plazan, arratsaldeko 19:30ean.

erakusketak

ARRASATE. 'Gay mugimenduaren historia Euskal Herrian. Heziketa da bidea'. Ekainaren 4tik 17a bitartean, Jai Zale tabernan

BERGARA. 'Emakumeek egindako eskulanak'. Ekainaren 15etik 24a bitartean, kultur etxean.

BARAKALDO. Margolan erakusketa. Ekainaren 13a arte, Udal Erakusketa aretoan, Barakaldoko Helduen Hezkuntza Iraunkorreko margolanak.

BURLATA. Patxi Marcellaren margolan erakusketa. Ekainaren 17a arte, kultur etxean.

DONOSTIA. 'Jose Antonio Ferran, Iñaki Alvarez, Iñigo Ormazabal eta Juan Berrozperen lanak'. Ekainaren 8tik uztailean 1a bitartean, Kutxak Donostian duen erakusketa aretoan (Boulevard, 1).

DURANGO. 'Michele Neurisse'. Ekainaren 1etik 24ra, Artearen eta Historiaren Museon.

ELGOIBAR. 'Brontzezko eskulturak'. Ekainaren 24a bitartean, kultur etxean.

ERRETERIA. Iñaki Epelde, Koldobika Jauregi eta Jose Luis Longaron. Gaspar aretoan, ekainaren 30a arte.

GETXO. Tailerretako ikasleek

egindako lanak. Ekainaren 15 arte, kultur etxean.

MIARRITZE. 'Eric Chaucheren argazkiak'. Uda amaitsu bitartean, Itsas erakustokian.

TAFALLA. 'Tafalla 2001 jaietako afixen erakusketa'. Ekainaren 12tik 27ra. Lagar aretoan.

TOLOSA. 'Ibilgailu klasiko VII. nazioarteko erakusketa'. Larunbatean eta igandean, San Esteban pabilioian.

'Mugi hadi'. Udal ingurumen departamenduak antolatutako erakusketa tematikoa.

ZARAUZ. 'Zarauzko Argazkiak Elkarte'. Ekainaren 24a bitartean izango da ikusgai, Torre Luzean.

ZIZUR NAGUSIA. 'Aintzinako Euskal Herriko bizimodua postal irudietan'. Ekainaren 24a bitartean,

kultur etxean.

ZORNOTZA. 'Bilbori buruzko historia laburra bere zubien bitartez'. Ekainaren 12a bitartean, Zornotza aretoan.

ikastaroak

IRUÑEA. Udaletxeko Eraikuntza Eskola-Lantegia. 16-24 urteko gazteendako, etxegile, arotz eta hargin lanbideak ikasteko matrikula zabalik. Ikastaroak bi urtez iraunen du, goizeko ordutegian. Soldata eta lan kontratuarekin. Informazio gehiagorako: 948-132719.

Eguzki Irrati librean parte hartzeko deialdia. Irratian kolaboratu edo parte hartu nahi duten guztiendako. Astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 21:00etara

Navarrerria kaleko 6. atariko 1. etxebizitzan galdegina.

lehiaketak

ERMUA. Argazki lehiaketa. Bidaia batean ateratako argazki bat aurkeztu beharko da 24x30 neurrian. Kartazal itxian aurkeztu, Torreta Etxean: *Argazki lehiaketa: Torreta Etxea 2001eko Oporrak* izenarekin, urriaren 16a baino lehen.

ONDARROA. Augustin Zubikarai I. Saria. Euskarazko nobela laburrak bidali behar dira, 2001ko abenduaren 31 baino lehen. *Ondarroako Udala-Euskara Zerbitzua, 48700 Ondarroa* helbidera. 4.000 euroko saria emango da. Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe eta Jesus Mari Olaizola osatuko dute epaimahaia.